



## **AIARAKO UDALAK 2022ko UZTAILAREN 21ean EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.**

### **PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jn.

### **ZINEGOTZIAK**

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Susana Martín Benavides and.

Itxaso Gorbeña Allende and.

Unai Campo Arenaza jn.

Karmele Población Martínez and.

Marian Mendiguren Mendibil and.

Koldo Mendioroz Goldaraz jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita biko uztailaren hogeita batean, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa era telematikoan bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

### **EZ DA BERTARATU**

Montse Angulo Solloa and.

### **IDAZKARIA**

Naiara Lazpita Marcos and.

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

### **1.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko ekainaren 23an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta**

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hitza hartu du adierazteko bozketan abstenituko direla, ez zelako saioan egon.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du jakinarazteko aktaren 20. orrialdean jartzen duela “Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza 2021eko aurrekontuan uholde-arriskuei buruzko azterketetarako partida dagoeneko azaltzen zela adierazteko. 2022ko aurrekontuan ez da jaso eta akats hori dela eta, beste inbertsio batzuk izendatu ahal izan dira. Partida hori sartuta balego, horiek ezin izango lirateke egin. Horrez gain, sinesgaitza iruditzen zaio gobernu-taldeko kide guztiei akatsa ahaztea, beste gauza batzuetarako horren zorrotzak direnean”.

Berak ez zuen “exhaustivos” esan (gaztelerazko aktan jartzen duena), “zorrotzak” baizik, adibidez “estrictos” erabili daitekeela hori itultzako.

Idazkari andreak hitza hartu du adierazteko aldatuko duela.



Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) dio ekaineko aktaren 42. orrialdean jartzen duela “Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du EH BILDUK proposamen bat egin zuela, eta eskatu zuela pertsona horiek erretiratzen zirenean, langileen zerrendan eskakizuna sartzeko, horrenbestez, Kuadrillaren osoko bilkura hartan proposatu zena ikuskatuko du”.

Dio, ez duela uste hori dela esan zena, eta EH BILDUK Kuadrillan eskatu zuena begiratu du, eta ez zen inola ere esan den hori eskatu.

Alkateak, Gentza Alamillo Udaeta jaunak (EAJ-PNV) dio aktan agertzen den hori esan zuela. Gehitu du ez zela egon Kuadrillaren bileran, eta ez zuela idazkia ikusi, baina uste zuela hori zela eskatu zutena.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) eransten du Kuadrillari bidali zitzaion idazkiak ziola orain arte arkitektoa eta aparejadorea Kuadrillako langileak direla, eta, hainbeste lan badute, hobe izango litzatekeela langile bihurtzea, eta behin horrela, langileen zerrendan dagokien eskakizuna aztertzeke aukera egongo litzatekeela.

Idazkari andreak hitza hartu du adierazteko berak aktan Gentzak gaiari buruz esandakoaren interpretazioa jaso zuela, baina ez dakiela zer aurkeztu zuen EH BILDUK Kuadrillan.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) berriz hartu du hitza esateko ez dakiela nola adierazi EH BILDUK ez zuela hori eskatu.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hitza hartu du adierazteko EH BILDUK zerbait argitu nahi izanez gero, eskaerak eta galderak egiteko txandan egin dezakeela, baina esandakoa jasota dagoena bada, aktan ondo adierazita dagoela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du esateko gaztelerazko aktaren 24. orrialdean, bere esku-hartzean, ez zuela esan nahi aurreko bilkuran ez zela interes publikoari buruz hitz egin, baizik eta, gaiari buruz jorrratu zenean ez zela interes publikoaren aipamenik egin.

Ez dago aktari buruzko iruzkin gehiagorik, eta bertaratutako zinegotzi guztiek erredakzioan onetsi dituzte proposatutako aldaketak, Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) ez ezik, adierazitako arrazoiengatik.

## **2.- Onestea, bidezkoa bada, Melillari buruzko mozioa**

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du adierazteko informazio-batzordean bi mozio aurkeztu zirela: bata EH BILDU alderdiarena, eta bestea EAJ-PNV alderdiarena. Batzorde berean dagoeneko adierazi zen Eusko Legebiltzarrak moldatutako mozio bat onetsi zuela. Ondorioz, erabaki zen aipatutako bi mozioak indargabetzea eta Legebiltzarrak onetsitako mozioa bilkura honetara ekartzea.



Ez da iruzkinik egin, eta gaia bozkatu da. Bertaratutako zinegotziek aho batez onetsi dute.

Ondorioz,

**IKUSI DA.**- “Aldarrikapena, Melillaren inguruan”.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

**LEHENENGOA.**- “Aldarrikapena, Melillaren inguruan” onestea, hitzez hitz honela diona:

### *“ALDARRIKAPENA, MELILLAREN INGURUAN*

*Joan den ekainaren 25ean, Espainiako Estatuko hegoaldeko mugan historiako hondamendi humanitario larrienetako bat bizi izan zen. Gutxienez 37 pertsona hil ziren, GKE-en arabera, eta dozenaka zauritu Melillara iristen saiatzean, indarkeria-irudi basatiekin, beroan egindako itzulketekin eta migrazio-agintarien aldetik giza eskubideak larriki urratuta.*

*Testuinguru horretan, Espainiako presidenteak adierazpen onartezinak egin zituen jarduerak ulertu eta babestuz. Horrez gain, aipatu zuen Espainiako eta Marokoko segurtasun-kidegoek egoera ondo konpondu zutela.*

*Gertaera hauen aurrean gaur bertaratutako taldeek honako hau onartu dute:*

### *ALDARRIKAPENA*

- 1. Gure atsekabea eta salaketa irmoa adierazten dugu joan den ekainaren 25ean Melillako mugan gertatutakoengatik, eta elkartasun osoa adierazten diegu poliziaren jardun basatiaren ondorioz hildako edo zauritutako Saharaz hegoaldeko pertsonen familiei.*
- 2. Berehalako ikerketa independentea eskatzen dugu, gertakariak argitu, erantzukizunak banatu eta biktimen erreparaziorako neurriak ezartzeko.*
- 3. Hildakoen gorpuak berreskuratu, identifikatu eta jatorrizko herrialdeetara aberriratzeko eskatzen dugu, familien nahiak errespetatuz.*
- 4. Adierazi nahi dugu, halaber, erabat gaitzesten ditugula migrazioaren eta asiloaren arloan Europak eta Espainiak gaur egun dituzten politikak, mugak militar izatzeari eta kanpora ateratzeari buruzkoak.*
- 5. Eskatzen dugu legezko bide seguruak ezartzeko, migratzaile guztien duintasuna eta giza eskubideekiko errespetua bermatze aldera.*
- 6. Gure ustez Europar Batasunak migrazio-politika koherente eta bateratua ezarri behar du, eta asilo- eta babes-politika giza eskubideen errespetuan oinarritua.*
- 7. Mugetara iristen diren migratzaileen erantzukizunak eta kudeaketak EBko kideen artean komuna, arduratsua eta solidarioa izan behar duela uste dugu.*

I.F.K. C.I.F. P0101100F



8. *Azkenik, bertaratutako taldeok berretsi egiten dugu giza eskubideetan oinarritutako migrazio-politikak bultzatzea, eskuin muturreko ideologiek bultzatutako diskurtso xenofoboan eta praktika autoritarioen aldean”.*

### **3.- Onestea, bidezkoa bada, kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 2/2022 espedientea**

Ondoren, Udalbatzari kontu ematen zaio Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua bidez, alkate-udalburuak, behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiengatik, gai-zerrendan alde aurretik dagokion informazio batzordean jakinarazi ez dituen gaiak sar ditzakeela. Hala ere, kasu horretan, ezin izango da gaiari buruzko erabakirik hartu, Osoko Bilkurak gai-zerrendan sartzea berresten ez badu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da. Ez da iruzkinik egiten eta bozkatu da, eta aho batez onetsi da Osoko Bilkura honen gai-zerrendan sartzea.

Gaiari buruzko erabaki-proposamenaren kontu eman da.

Ez da iruzkinik egin eta gaia bozkatu da. Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dute.

Hori dela bide,

**IKUSI DA.- Kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 2/2022 espedientea.**

**IKUSI DA.-** Idazkaritza Kontu-hartzailtzaren 2022ko uztailaren 18ko txostena.

**KONTUAN HARTU DA.-** Toki Ogasunak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 176. artikulua eta Toki Ogasunak arautzen dituen 500/1990 Errege Dekretuaren 16. artikulua.

Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotziek (udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik bertaratu diren 10ek) aho batez onetsi dutela, **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa.-** Onestea kredituen judizioz kanpoko aintzatespenaren 2/2022 espedientea, ondoren zerrendatzen diren gastuak bezalaxe, aurreko ekitaldian (2022) hartutako betebeharra delako. Helburua ordainketa egin ahal izatea da, Udalaren aldetik bidegabe aberastea saihestuz.

- 2101012908 zenbakiko faktura, 2021/03/01ekoa, “ADMINISTRADOR DE INFRAESTRUCTURAS FERROVIARIAS (ADIF)” enpresarena, 567,57 eurokoa (BEZa barne).

**Bigarrena.-** Aipatutako kredituen aintzatespena 2022 ekitaldiaren aurrekontuari egoztea 150.210.000 zenbakiko aurrekontu-aplikazioaren barruan.



#### **4.- Alkatetzaren Dekretuen kontu ematea**

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaizkio 2022/414 eta 2022/465 bitarteko Alkatetza Dekretuak, bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/414.- N.G.M.- Udalaren obra-lizentzia ematea eta Luiaondoko etxebizitzan 2. fasearen obra hasteko baimena lortu aldera dokumentuak eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/415.- M.V.E.- Murgan nekazaritza eta abeltzaintzako pabiloia eraikitzeke hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/416.- M.V.E.- Dokumentua eskatzea, Murgan nekazaritza eta abeltzaintzako jardueraren aurretiko jakinarazpena jasotzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/417.- Instalaciones telefónicas Aiara SL- 2022ko ibilgailuen zergaren zati proportzionala itzultzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/418.- MP.U.I.- Obrak hasteko baimena ematea, Zuhatzako etxebizitzan forjaketa eta teilatua birgaitze aldera.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/419.- Etxaurren Ikastolako IGEa- 2022ko maiatzeko nominak ordaintzea, talde psikopedagogikoa eta bi urteko ikasgelako laguntzailea.

ALKATETZAREN DEKRETUA 2022/420.- Zuhatzako Administrazio Batzarra- 2022/410 Alkatetzaren Dekretuaren transkripzioan akatsa zuzentzea. Dekretu horren bidez informazio publikorako sarbide lizentzia ematen da.

ALKATETZAREN DEKRETUA 2022/421.- J.U.B.- 2022ko TMIZaren ordaindutako ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailua behin betiko bajan emateagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/422.- Banoa SL- Jarduera hasteko jardueraren araberako sailkapenaren arrazoiak aztertzeke dokumentuak eskatuz eta antolamenduz kanpoko egoeran geratu den hirigintza leheneratzeko espedientea hastea. Murgako industrialdeko bigarren pabiloiari buruzkoa da.

ALKATETZAREN DEKRETUA 2022/423.- Garabideko programa, laguntza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/424.- L.A.G.- Kexaan partzeletarako harguneen eta sarbideen urbanizazio-obrak hasteko baimenari dagokionez, Udalren obra-lizentzia ematea eta dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/425.- L.A.G.- Kexaako partzeletan sarbidearen urbanizazio eta harguneen obra egiteke hondakin-kudeaketaren fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/426.- IÑIGO MENOYO GOCHI.- Zuhatzako lurzoru urbanizagarriko sektorearen ituntze batzarra eratze aldera eskritura zuzentzeke eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA - 2022/427.- Elkarkidetza Pentsioak- 2022ko ekainaren likidazioko faktura.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/428.- A.M.A.- TMIZaren ordainagiriaren zenbatekoaren % 25eko hobaria ematea, familia ugariaren titulua egiaztatzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA 2022/429.- O.P.R. 2022ko TMIZaren zati bat itzultzea, ibilgailuari behin betiko bajan emateagatik.



ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/430.- PA.G.Z.- Olabazarren ibilgailuan kalteak direla eta jabeak aurkeztutako ondare erreklamazioa ez onartzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/431.- JM.U.C.- Lehen erabilerako lizentzia ematea eta dokumentuak eskatzea, Menagaraiko eraikinean egindako berrikuntza-obraen hondakinen kudeaketaren fidantza itzultze aldera.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/431.- Hiriko OHZari dagokion errolda onestea, 2022 ekitaldia.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/433.- G.A.P. 2022ko TMIZaren zati bat itzultzea, ibilgailuari behin betiko bajaran emateagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/434.- Landaguneko OHZ errolda onestea, 2022 ekitaldia.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/435.- Garobel SL- Murgako 4 poligonoko 197 partzelan 3 eraikinaren eraikuntza hirigintzaren ikuspegitik lehengoratzeko espedientea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/436.- Garobel SL- Jarduera sailkatuaren aurretiazko komunikazioa jaso ez dela jakinaraztea eta sailkatutako jardueraren lizentziaren espedientea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/437.- ORKATZ SL- Informazio publikorako sarbidea.- 2022ko Aiarako bideetako sasiak garbitzeko zerbitzuaren enpresa lizitatzailen memoria teknikoen kopiak.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/438. E.A.M.- Murgako Arakio auzoko 47-eskuinean baserriaren birgaitze-obra amaitzeko epea luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/439. E.A.M.- Murgako Arakio auzoko 47-ezkerrean baserriaren birgaitze-obra amaitzeko epea luzatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/440.- C.P.A.- Zuhatzan eraikin osagarria (txokoa) osorik berritzeko Udalaren obra-lizentzia ezezte.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/441.- Aiarako 4 poligonoko 722 zenbakiko katastro-partzelan dagoen eraikinaren berehalako aurri-egoera fisikoa deklaratzeko espedientea hastea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/442.- Enkarkiri soropila mozteko makina alokatzeko kontratu txikia esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/443.- Lemona Forestal SLri Zuhatzako industrialdean zuhaitzak mozteko zerbitzuaren kontratua esleitzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/444.- L.A.G.- Kexaako partzeletan harguneak eta sarbideen urbanizazioa egite aldera obra hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/445.- LUIAONDOKO PADURA KALEKO 35. ZENBAKIKO J.E.- Udalaren obra-lizentzia ematea eraikin komunitarioan igogailua instalatzeko.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/446.- OLABEZARREKO UDAL-ERAIKINAREN HARTZAILEAK KALERATZEKO BAIMEN JUDIZIALAREN ESKAERA.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/447.- Lantenoko Administrazio Batzarra.- Lantenon Ureta auzora iriste aldera auzo-bidea konpontzeko obraen hondakin-kudeaketari buruzko fidantza eskatzea.





ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/448.- Lantenoko Administrazio Batzarra.- Lantenoko eskolen eraikinaren ondoko pistan aulkiak instalatzeko Udalaren obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/449.- Gesvalt SA- M.G.O.- Menagaraiko 2 poligonoko 2163 partzelan metalezko egitura eraikitzeagatik hirigintza leheneratzeko espedientea jakinaraztea eta eskatutako hirigintzako txostena bidaltzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/450.- 2022ko ekaineko nominen ordainketa onestea, 2021/22 Eskualdeko Enplegu Planean (PECO) kontratatutako langileen azken likidazioa.

ALKATETZAREN DEKRETUA 2022/451.- Olabazarren txabola berritzeko obrak egite aldera hondakin-kudeaketari buruzko fidantza eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA 2022/452.- I.G.L.- Udalaren obra-lizentzia ematea eta Olabazarren txabola berritzeko obrak hasteko baimena emate aldera dokumentuak eskatzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/453.- Alkatearen eta funtzionarioen nominen ordainketa likidoa onestea, 2022ko ekaina.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/454.- Izoriako Administrazio Batzarra- Izoriako Aretxa auzoko hiriko sareak eta zoladura berritzeko obrak hasteko baimena ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/455.- Udalkideentzako ekarpen ekonomikoa onestea, 2022ko ekaina.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/456.- Alkatearen eta funtzionarioen nominen ordainketa likidoa onestea, 2022ko ekaineko pasa estra.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/457.- G.O.T.- Etxegoieneko etxebizitzaren lehen erabilerako lizentzia ematea eta dokumentu osagarriak eskatzea, obraren hondakin-kudeaketari buruzko fidantza itzultze aldera.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/458.- Udalerriko alderdi politikoentzako ekarpen ekonomikoa, 2022ko ekaina.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/459.- BENITO URBAN SLUri esleipena- Hiri-altzariak eta haurrentzako jolasak hornitzeko kontratua.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/460.- E.M.L.- Olabazarreko partzelan hesia eta itxitura konpontzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/461.- P.D.P.- Menagarain hesia eraikitzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/462.- J.M.G.- Menagaraiko etxebizitza berritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/462.- Etxaurreneko Lagunak Elkartea.- 2022an emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/464.- JA.B.P.- Arespalditzako etxebizitzaren fatxada eta kanpoko arotzeria zarpiatu eta margotzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2022/465.- E.M.L.- Olabazarreko etxebizitzan zolata eraikitzeko obra-lizentzia ematea.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) 443. dekretuari buruz galdetu du ea zergatik aipatzen den Zuhatzako industrialdea, ea akatsa den.

I.F.K. C.I.F. P0101100F



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du akatsa dela. Lanak Murgako industrialdean egiten ari dira, pixkanaka egingo den banaketa da, zuhaitz eta sustraiekin arazoak direla-eta eskatu digutelako.

Ez dagoenez horren inguruko iruzkinik, udalkideak jakinaren gainean gelditu dira.

## **5.- Eskaerak eta galderak**

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) batzordean eztabaidatu zen lehen-mailako arretaren gaiari buruz galdetu du, ea Udalak adostu zen gutuna bidali duen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du lehen-mailako arretako unitateburuari posta elektronikoa bidali zitzaiola, eta, aldi berean, berak Barrualdeko ESIari igorri ziola. Erantsi du ematen duten erantzuna administrazio-batzarrei jakinaraziko zaiela. Halaber, administrazio-batzarrek aurkeztutako idazkia igorri zen. Hark dakiela, ez da horren erantzunik jaso.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) azaldu du administrazio-batzarrek duela asko dutela erantzuna.

EGINBIDEA.- Idatziz jaso gelditzeko, 19:20an Susana Martín Benavides zinegotzi andrea osoko bilkuren aretora sartu da bilkuran parte hartzeko.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du bilkuraren hasieran eztabaidatzen ari zenarekin jarraitzeko, hain zuzen ere, arkitekto eta aparejadorearen lanpostuen hizkuntza-eskakizunarekin. Erantsi du EH BILDUK ez duela eskatu erretirora iristea eskakizunak jartzeko. Azaltzen du beren eskaeraren arabera egoera aztertu beharko litzatekeela, eta jakin beharko litzatekeela Udaleko langileak izan daitezkeen, Kuadrillako langileak izatearen orde, hala izanda, gerora, lanpostuei zein eskakizun dagokien aztertzeko. Hori da eskatu den bakarra, egoera aztertzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du eransteke Udalak arkitekto eta aparejadore lanpostuak bere gain hartzen baditu, Aldundiak ematen duen finantzazioa galduko dela, Kuadrillaren bidez gauzatzen delako.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) azaldu du berak egoera aztertzea baino ez duela nahi, eta gero ikusiko dela zein erabaki hartzen den; hori da Kuadrillari eskatzen zaiona.

- Banda zabalari dagokionez, Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) azaldu du batzuetan aurkeztu diren dokumentuak ez direla zehatzak, gune batzuetan, itxuraz, banda gabe geratzen direlako, lehen izan arren. Gogorarazten du administrazio-batzarrekin





harremanetan jartzeko eskatu zela, banda zabalarik gabe geratu daitezkeen guneak ote dauden jakiteko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du eta azaldu du hartu zen konpromisoa administrazio-batzarrei Aldundiaren informazioaren zirriborroa bidaltzea zela, eta haiek horren gaineko hausnarketak bidaliko zituztela, eta hori egin da, aztertu dezaten.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du galdetzeko ea bilera eskatu den Renferekin, aurreko bilkuran adostu zen gisa.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du eta erantzun du oraindik ez dela egin.

Íñigo Pinedo Vadillo zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du eta azaldu du lehenago Amurrio, Llodio eta Urduñako alkateekin harremanetan jartzeko asmoa zegoela, jarrera bateratzeko eta presio gehiago egiteko.

- Karmele Población Martínez zinegotzi jaunak (EH BILDU) galdetu du ea Garabide programaren barruan zein obrarako eskatu den laguntza.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Arespalditzako haurren jolastokirako dela.

Karmele Población zinegotzi andreak (EH BILDU) berriz hitza hartu du azaltzeko eskaera egin zenean eskatu zela Luiaondoko geltokian bizikleta elektrikoak uzteko aukera aztertu zedin, eta erantzun zen dagoeneko martxan zegoela.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Aldundiak martxan jarri duela proiektua. Gainera, azaltzen du, Luiaondoko gimnasiarako ekipamenduari dagokionez, dagoeneko herritarren batek eskatu zuenez, aurrekontua eskatu dela, aurrekontuko partida dagoelako.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) azaldu du ez zuela horien berri.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du partidak aurrekontuan daudela, eta gobernu-taldea horretan lanean ari dela, eta proiektuak aurreratuagoak daudenean batzordean jakinaraziko dituztela. Bizikletentzako aparkaleku seguruari dagokionez, orain arte bilera bat baino ez da egin Aldundiarekin, eta gehiago garatzen denean batzordean jakinaraziko da.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) azaldu du hori asko errepikatzen dela, jarduketa askoren berri oso berandu dutela, Zaroabe aldizkariaren edo hedabideen bidez, eta orduan berandu dela ekarpenak egiteko edo iritzia emateko.



- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) batzordean uraliten harira eginiko iruzkinaren ildoan galdetu du ea protokolorik dagoen era seguruan kentzeko.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du hondakinak biltzeko kontratuan jasota dagoela horiek kendu behar direla, baina ez dutela zerbitzuko langileek egiten, behar bezala kudeatzen duen empresa espezializatuarekin harremanetan jartzen dela.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) uztailaren 78ko sarrerari buruz (2.699 zk.) galdetu du. Murgako poligonoko proiektuari buruzkoa da, eta galdetu du ea begiratu den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du oraindik ez dutela oso sakon aztertu. Ur-harguneen eta hargune horien kokapenaren gaineko zalantzak izan dituzte, sutea dagoen kasuan errepidetik irisgarriagoak izan daitezen, eta eskatu da hor aldaketa egin dezaten.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) 2.830 zenbakiko sarrerari buruz galdetu du, ez duelako ulertzen. Izoriako Administrazio Batzarraren eskaera bati buruzkoa da.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udalak zein Batzarrek dirulaguntzetarako aurkeztu behar duten egiaztagiria dela, eta Udaleko arkitekto/aparejadoreari txostena eskatzen zaiola.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) 2.831 zenbakiko sarrerari buruz galdetu du, ez baitaki zeri buruzkoa den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) azaldu du ez dakiela zehazki zer den, jakinaraziko zaiola.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU), Murgako Administrazio Batzarraren 2.857 zenbakiko sarreraren harian, Palacio auzoan txakurrak solte egotearen kezka buruz galdetu du, ea Udalak eskumenik duen gai horretan, kezkarria iruditzen zaiolako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) azaldu du herritarrari jakinaraziko diotela, araudia bete dezan, ea horrekin nahikoa den.

- Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) hitza hartu du larren ordenantzari buruz galdetzeko, ea Gorobelen dagoen hondamendia erregulatuko den, dagoeneko ez dagoelako ezta txilarririk ere. Abereak dena jaten ari dira, eta ordenantza gabe ezin da arautu. Denbora asko daramatzate ordenantza eskatzen, pandemia baino lehen alegia, Gorobel gero eta okerrago dagoelako, gainkarga dagoelako, guztiek gauza bera diote.



Erantsi du Arespalditzako herritarrek urteak daramatzatela Done Bikenditik bidea eskatzen, eta jakinda errepideen eskumena dela, oraindik ez dela ezer egin.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) gehitu du gauza askoren berri falta zaiela, hainbat bilkura egon direla Urbideko partzuergoaren gaineko informazioa eskatzen, eta ez dela azalpenik eman.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) Urbideri buruz erantzun du ezin izan dela akta bidali ez dutelako; gaur edo atzo jakinarazi diete datorren astean batzarra dutela, eta informazioa jakinaraziko zaie.

“Gorobel gero eta okerrago dagoelako, gainkarga dagoelako, guztiek gauza bera diote” iruzkinari buruz, Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) dio ez dakiela nor den “guztiek”, ordenantza landu behar dela eta Gorobel hobe egon daitekeela, egia da, baina ez duela uste hondamendia denik.

Done Bikenditik (Arespalditzan) bidea egiteari buruz, hainbat aukera aztertzen ari dira, errepideak ez duelako uzten bidea gainetik egitea, konponbideak eta aukerak ari direla bilatzen teknikariek, baina oraindik ez dela ezer zehaztu, aurreratzen denean jakinaraziko dela.

Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du azaltzeko Gorobelen larreak eta gainerakoa arautzen duen ordenantza badagoela.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) azaldu du pandemia baino lehen bere taldeak ekarpenak egin zizkiola ordenantza horren aldatetari, eta ordutik ez dela informaziorik eman horri buruz.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ez dela egia, informazioa ematen egon direla, eta NPBren araudia ateratzearen zain egon direla, horretara moldatzeko.

• Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du ea Urbideko estatutuak onetsi diren, eta ea zer esan duen diputatuak TEFFFaren atalari buruz.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) azaldu du haiek adi egongo zirela diputatuak agerraldia egiten zuenean, ea zerbait esaten zuen horri buruz, alegazioak aurkezten ziren jakiteko. Oraindik ez da aldaketa adostu.

• Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hitza hartu du eta azaldu du bat datorrela informazioa ez iristeari buruz esandakoarekin, berak gauza askoren berri duela batzordeko burua delako, ez zinegotzia izateagatik, batzordeetara heltzen diren kontuak landuak eta erabakita daudela, eta ezin dela ekarpenik egin, gobernu-taldeak badaki gauzak onetsiko direla eta gutxi kontsultatzen duela; esate baterako Garabideren dirulaguntza, uztailaren 12an eztabaidatu zela eta epea uztailaren 14an amaitzen zela, beraz, ezer gutxi esateko aukera zegoela.



Gentza Alamillo Udaeta zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) azaldu du aurrekontuak onesteko apirileko bilkuran aipatu zela zabuak dirulaguntza deialdi horretan eskatuko zirela. Proposamena ez zen uztaileko batzordera arte aztertu, azterketa geoteknikoarekin arazo bat izan zelako eta ordura arte ezjakina baitzen obra egiteko aukerarik zegoen, beraz, apiriletik jakina zen eta taldeek ez zuten ekarpenik egin.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate udalburuak bilera bukatutzat eman du iluntzeko zortziak eta hogeit hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko uztailaren hogeita batean.

O.E.

ALKATE-UDALBURUA,

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.